


ITSASOKO ERREGIMEN

BEREZIAN GENERO-ARRAKALA MURRIZTEKO

OSAGARRI BERRIA.




MINISTERIO
DE INCLUSIÓN, SEGURIDAD SOCIAL
Y MIGRACIONES

SECRETARÍA DE ESTADO
DE LA SEGURIDAD SOCIAL
Y PENSIONES



INSTITUTO SOCIAL
DE LA MARINA

AURKIBIDEA



ZER DA GENERO-ARRAKALA MURRIZTEKO
PENTSIOEN OSAGARRIA?

NORK DU OSAGARRI HAU JASOTZEKO ESKUBIDEA?

PENTSIO GUZTIENTZAKO AL DA?

ZER ZENBATEKO DU?

ZENBAT DENBORAZ JASOKO
DA OSAGARRI HAU?

ZEIN KASUTAN EZ DA EZAGUTZEN OSAGARRIA?

AMATASUN-OSAGARRIA

NOLA ESKA DEZAKE ITSASOKO LANGILE BATEK
GENERO-ARRAKALA MURRIZTEKO OSAGARRIA?

ARAUDIA



ZER DA GENERO-ARRAKALA MURRIZTEKO PENTSIOEN OSAGARRIA?

Pentsioetan ageri den genero-arrakalaren aurka dihardu. Horretarako, erreformatu egin da urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bategineko 60. artikulua.

Amatasunak eragin erabakigarria du emakumearen lan-ibilbidean, jardunean dagoen garaian, eta hori da, hain zuzen, arrakala horren arrazoi garrantzitsuenetako bat. Zenbat eta seme-alaba gehiago izan, orduan eta txikiagoa da kotizatutako urte kopurua, orduan eta txikiagoa da lanaldi osoko edo pareko kontratuen proportzioa, eta txikiagoa da ezagututako pentsioa.

Pentsioetan ageri den arrakala horren aurka borrokatzeko, beharrezko xedapenak eman dira otsailaren 2ko 3/2021 Errege Lege Dekretuaren bidez. Errege lege-dekretu horren bitartez, Gizarte Segurantzaren eta ekonomiaren arloan genero-arrakala eta beste gai batzuk murrizteko neurriak hartzen dira.

Genero-arrakala da Gizarte Segurantzak pentsioen esparruan duen babes-ekintzaren urritasun nagusia, emakumeen diskriminazio

historiko eta estrukturalaren isla baita lan-merkatuan. Izan ere, emakumeek hartzen dute seme-alabak zaintzeko rola. Ildo horretatik, egiaztatu da amatasunak eragin erabakigarria duela emakumearen lan-ibilbidean, jardunean dagoen garaian, eta hori da, hain zuzen, arrakala horren arrazoi garrantzitsuenetako bat, garrantzitsuenaz ez bada: zenbat eta seme-alaba gehiago izan, orduan eta txikiagoa da kotizatutako urte kopurua, orduan eta txikiagoa da lanaldi osoko edo pareko kontratuen proportzioa, eta txikiagoa da, azken batean, ezagututako pentsioa.

Errege-dekretu horrek erreformatu egiten du urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bategineko 60. artikulua. Horrela, atea irekita uzten du gurasoek osagarri hau eskuratzeko eskubidea izan dezaten, zainketalanak beren gain hartzeagatik seme-alaba bat jaio edo adoptatzeagatik kotizazio-karreraren kaltea izan dutela egiaztatzen badute. Hau da, konbinatu egiten dira emakumeen aldeko ekintza positibo bat eta antzeko egoeran egon daitezkeen gizonentzako aukera bat.

Gurasoetako batek ere ez badu egiaztatzen bere kotizazio-karreraren izandako kaltea, osagarria emakumeak jasoko du.

Bestalde, osagarri honek denborairismena du. Izan ere, konpondu egin nahi du gaur egun pentsioa jasotzen duten emakumeek beren ibilbide profesionalen jasan duten kaltea, hau da, iraganean sortutako kaltea. Hortaz, guztiz bateragarria eta koherentea da gaur egun lan-merkatuan dauden desberdintasunak eta zainketekin lotutako rolen esleipena zuzenduko dituzten anbizio handiko berdintasun-politikak garatzearekin. Izan ere, konpondu egin nahi da gaur egun pentsioa jasotzen duten emakumeek beren ibilbide

profesionalen jasan duten kaltea, hau da, iraganean sortutako kaltea. Ondorioz, osagarriaren denborahedadura lotzen da kotizaziopeko erretiro-pentsioetan genero-arrakala ehuneko 5etik behera murrizteko helburua lortzearekin.

Itsasoko Gizarte Institutuak, erregimen berezi hori kudeatzen duen erakundea den aldetik, emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasunean inplikatura dagoenez, osagarri berri horren berri eman nahi du, eta horretarako egin da, hain zuzen, informazio-liburuxka hau.




NORK DU OSAGARRI HAU JASOTZEKO ESKUBIDEA?

Osagarri hau jasotzeko eskubidea izango dute, orobat, seme-alaba bat edo gehiago izan eta kotizaziopeko erretiro-pentsioaren, ezintasun iraunkorraren edo alarguntasun-pentsioaren onuradun diren emakumeek. Osagarri honen izateko arrazoiak da genero-arrakalak emakumeengan oro har duen eragina Gizarte Segurantzaren kotizaziopeko pentsioen zenbatekoan.

Osagarri hau jasotzeko eskubidea ezagutzen eta mantentzen zaio emakumeari, baldin eta beste gurasoaren eskaerarik eta ezagutzarik ez badago.

Bi gurasoetako bat bakarrik ezagutu ahal izango da, eta 2021eko otsailaren 4tik aurrera izandako gertaera eragileei aplikatuko zaie.




“Osagarri hau jasotzeko eskubidea ezagutzen eta mantentzen zaio emakumeari, baldin eta beste gurasoaren eskaerarik eta ezagutzarik ez badago.”

EMAKUMEEK

ZER BALDINTZA BETE BEHAR DITUZTE OSAGARRIA ESKATZEKO?

- Seme-alaba bat edo gehiago eduki izatea.
- Erretiroko, ezintasun iraunkorreko edo alarguntzako kotizaziopeko pentsio baten onuradun izatea.

Bi gurasoak emakumeak badira, zenbateko txikiagoko pentsio publikoa jasotzen duena ezagutuko da.



GIZONEK

ZER BALDINTZA BETE BEHAR DITUZTE OSAGARRIA ESKATZEKO?

- **Seme-alaba bat edo gehiago eduki izatea.**
- **Kotizaziopeko pentsio baten onuradun izatea.** Baldintza hauetakoren bat bete beharko dute betiere:
 - Beste gurasoa hiltzeagatik **alarguntasun**-pentsioa sortzea, eta bien seme-alabetako batek zurtzasun-pentsioa jasotzeko eskubidea izatea.
 - **Erretiro**-pentsioa **edo** kotizaziopeko **ezintasun iraunkorraren** ondoriozko pentsioa sortzea, eta beren lanbide-karrera etenda edo kaltetuta ikusi izatea jaiotza edo adopzioa dela-eta, honako eskakizun hauen arabera:

JAIOTAKO EDO ADOPTATUTAKO SEME-ALABAK	ESKAKIZUNAK
1994KO ABENDUAREN 31RA ARTE	- Jaiotako seme-alabak: 120 egun baino gehiago kotizatu gabe izatea jaiotzaren aurreko 9 hilabeteen eta data horren ondorengo 3 urteen artean. - Adoptatutako seme-alabak: 120 egun baino gehiago kotizatu gabe izatea adopzioa eratzen deneko ebazpen judizialaren dataren eta data horren ondorengo 3 urteen artean.
1995EKO URTARRILAREN 1ETIK AURRERA	- Jaiotako eta adoptatutako seme-alabak: Jaiotzaren edo adopzioaren ebazpen judizialari dagokion dataren ondorengo 24 hilabeteen kotizazio-oinarrien batura data horren aurre-aurreko 24 hilabeteena baino % 15 txikiagoa izatea.

Gizonari ezagututako pentsioen baturak emakumeari ezagututako pentsioen batura baino txikiagoa izan beharko du. Eskakizun hori ezarriko da bi gurasoek kotizaziopeko prestazioa jasotzeko eskubidea sortzen dutenean, legean aurreikusitako moduan.

Bi gurasoak gizonak badira eta biek aurreko eskakizunak betetzen badituzte, zenbateko txikiagoko pentsio publikoa jasotzen duenari ezagutuko zaio.

SEME-ALABEI DAGOKIENEZ:

- Seme-alaba bakoitzak osagarri bakar bat ezagutzeko eskubidea emango du.
- Dagokion pentsioa sortu duen egitatea gertatu aurretik bizirik jaio diren edo adoptatu diren seme-alabak zenbatuko dira.
- Bizirik jaioetako seme-alabak edo adoptatuak izan direnak Erregistro Zibilean inskribatu beharko dira.



PENTSION GUZTIENTZAKO AL DA?

Osagarri hau kotizaziopeko pentsio hauetarako ezagutzen da:

- Ezintasun iraunkorra.
- Alarguntasuna.
- Erretiroa.

Erretiro partzialeko pentsio baten kasuan, osagarria ezagutuko da erabateko erretiroa hartzen denean, kasu bakoitzean dagokion adina bete ondoren.



ZER ZENBATEKO DU?

Seme-alaba bakoitzeko osagarriaren zenbatekoa urte bakoitzeko Estatuko Aurrekontu Orokorren Legean finkatzen da. Urte bakoitzaren hasieran igoko da, Estatuko Aurrekontu Orokorren Legeak kotizaziopeko pentsioetarako aurreikusitako ehuneko berean.

2022. urterako, **zenbatekoa hileko 28€-koa izango da seme-alaba bakoitzeko**, zenbateko hori halako lauko mugarekin.

Ekainean eta azaroan sortzen diren aparteko bi ordainsariren bidez ordaintzen da hilero, osagarri hori jasotzeko eskubidea ematen duen pentsioarekin batera.

Nazioarteko araudia aplikatuz: Osagarriarako eskubidea ematen duen pentsioa sortzen denean nazioarteko araudia aplikatuz aseguru-aldiak osatzeagatik, osagarriari aplikatuko zaio erantsita duen pentsioari aplikatu beharreko prorrata temporis bera.

Erretiro aktiboaren kasuetan, pentsioa eta lana bateragarri egiten direnean eta bateragarritasunak irauten duen bitartean pentsioa ehuneko 50era murrizten denean, osagarria neurri berean murriztuko da. Ondoren pentsioa bere osotasunean birgaitzen denean, genero-arrakalarako osagarria era berean birgaituko da.

Erretiro atzeratuaren kasuetan: osagarriaren eta pentsioaren baturak ezin du gainditu gehieneko kotizazio-oinarriaren zenbatekoa.

Eta gehieneko pentsioa izanez gero, batu egiten da ere?

Bai. **Gehieneko muga gainditzen** duten pentsioen kasuan, osagarriaren zenbatekoa ez da kontuan hartuko gehieneko muga hori aplikatzeko. Hau da, osagarriaren zenbatekoa ez dago pentsioaren gehieneko mugaren mende.

Gutxienekoen ondoriozko osagarriak jasotzen dituzten pentsioetarako zenbatzen duzu?

Osagarri honen zenbatekoak ez du kontuan hartuko diru-sarreraren edo lan-errendimenduaren kontsiderazioa gutxienekoen ondoriozko osagarriaren eraginetarako.

Horretarako ezarritako eskakizunak betetzen badira, gutxienekoen ondoriozko osagarria ezagutzen da, eta zenbateko horri gehitzen zaio genero-arrakala murrizteko osagarria.

ZENBAT DENBORAZ JASOKO DA OSAGARRI HAU?

Onuradunak dagoeneko aipatu diren pentsioetakoren bat jasotzen duen bitartean jasoko du.

Ondorioz, sortzea, etetea eta azkentzea bat etorriko da osagarria ezagutzea eragin duen pentsioarenarekin edota beste gurasoak osagarria eskatzen badu eta ezarritako eskakizunak betetzen baditu.

Beste gurasoari osagarria ezagutuz gero, lehen gurasoari seme-alaba berengatik ezagututako osagarria iraungi egingo da. Ebazpena eman eta hurrengo hilaren lehenengo egunetik aurrera izango ditu ondorio ekonomikoak, baldin eta eskaera egin ondorengo 6 hilabeteetan ematen bada edo, hala badagokio, sortzen den pentsioa ezagutzen denetik aurrera.

Epe hori igarota, zazpigarren hilaren lehen egunetik aurrera. Eskubidea ezagutzeko ebazpena eman aurretik, entzunaldia emango zaio osagarria jasotzen ari denari.



ZEIN KASUTA EZ DA EZAGUTZEN OSAGARRIA?

- Guraso-ahalaz gabetua izan den aitari edo amari, guraso-ahalari datzekion eginbeharrak ez betetzean edo auzi kriminal edo ezkontzazkoan emandako epaian oinarrituta.
- Emakumearen aurkako indarkeriagatik kondenatua izan den aitari, baldin eta indarkeria hori amaren gainean eragin bada, legean edo Espainiak berretsitako nazioarteko tresnetan zehaztutako moduan.
- Seme-alaben aurka indarkeria erabiltzeagatik kondenatuak izan den aitari edo amari.
- Erretiro partzialaren kasuetan, erretiro partzialetik erabateko erretirora igarotzean bakarrik ezagutuko da, kasu bakoitzean dagokion adina bete ondoren.
- Zahartzaro eta baliaezintasuneko nahitaezko sorospeneke, funts bereziko eta aldi baterako alarguntzako pentsioei.



“ZEIN KASUTAN
EZ DA EZAGUTZEN
OSAGARRIA?

Seme-alaben aurka
indarkeria erabiltzeagatik
kondenatuak izan den
aitari edo amari.”

AMATASUN-OSAGARRIA

Ekarpen demografikoaren ondoriozko amatasun-osagarria ezagutzen zitzaien bi seme-alaba biologiko edo adoptatu edo gehiago izan zituzten eta kotizaziopeko pentsioa jasotzeko eskubidea sortzen zuten emakumeei, haren eskaera 2016ko urtarrilaren 1etik

2021eko otsailaren 3ra bitartean aurkeztu bazen. Horretarako, ehuneko bat aplikatzen zitzaien seme-alaba kopuruaren arabera (% 5 bi seme-alabagatik, % 10 hiru seme-alabagatik eta % 15 hiru seme-alaba baino gehiagorengatik, pentsioaren zenbatekora iritsi arte).



Zer gertatzen da dagoeneko amatasun-osagarria jasotzen dutenekin?


Amatasun-osagarria jasotzen jarraituko dute genero-arrakala murrizteko osagarria indarrean sartzean (2021eko otsailaren 4an) ekarpen demografikoaren ondoriozko amatasun-osagarria jasotzen ari ziren pertsonak.

Amatasun-osagarri hori **bateraezina** izango da genero-arrakala murrizteko kotizaziopeko pentsioen osagarri berriarekin. Interesdunek bata edo bestea aukeratu ahal izango dute.

Eta amatasun-osagarria jasotzen bada eta beste gurasoak osagarri berria eskatzen badu?

Beste gurasoak amatasun-osagarria jasotzeko eskubidea sortu bazuen, genero-arrakala murrizteko osagarria eskatzen badu eta legean ezarritakoa aplikatzeagatik jasotzea badagokio, ezagutzen zaion hileko zenbatekoa ordura arte jasotzen zuen amatasun-osagarritik kenduko da, eta horrek ondorio ekonomikoak izango ditu ebazpena eman eta hurrengo hilaren lehen egunetik aurrera, betiere eskaera egin ondorengo 6 hilabeteetan edo, hala badagokio, sortzen den pentsioa ezagutzean ematen bada ebazpena. Epe hori igarota, zazpigarren hilaren lehen egunetik aurrera.

“Amatasun-osagarri hori bateraezina izango da genero-arrakala murrizteko kotizaziopeko pentsioen osagarri berriarekin.”



NOLA ESKA DEZAKE ITSASOKO LANGILE BATEK GENERO-ARRAKALA MURRIZTEKO OSAGARRIA?

Osagarri hau eskatzeko, erretiroko, ezintasun iraunkorreko edo alarguntzako pentsioaren eskaerarekin batera egin beharko da.


Zure helbideari dagokion Itsasoko Gizarte Institutuaren probintziako edo tokiko zuzendaritzara bidali behar duzu eskaera. Eskaera tramitatzeko, eskatu nahi dituzun prestazioen eskabide ofizialaren eredua bete beharko duzu, eta eskatzen den dokumentazio pertsonala eta espezifikoa aurkeztu.

Aurrez aurre egin daiteke, baina Erregistro Elektronikoaren bidez ere eskuragarri dago zerbitzua, Gizarte Segurantzaren egoitza elektronikoan:

<https://sede.seg-social.gob.es>

Zerbitzu horretara sartzeko, ziurtagiri elektronikoa edo cl@ve iraunkorra izan beharko duzu. Horrez gain, eskaera-eredu normalizatuak dituzu Gizarte Segurantzaren web-orriaren bidez.

Halaber, aukera duzu **“ISM en tu bolsillo”** aplikazio mugikor berriaren bidez eskabidea aurkezteko




Laburbilduz, genero-arrakala murrizteko osagarria erretiroko, ezintasun iraunkorreko eta alarguntzako pentsioekin batera eska dezakezu bitarteko hauen bidez:

Aurrez aurre,
etxetik gertuen
duzun IGiko
probintziako
edo tokiko
zuzendaritzan.


Gizarte
Segurantzaren
egoitza
elektronikoaren
bidez.

“ISM en tu bolsillo”
aplikazio mugikor
berriaren bidez.



ARAUDIA

- 8/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bategina onartzen duena.
- 47/2015 Legea, urriaren 21ekoa, Itsasoaren eta Arrantzaren Sektoreko Langileen Gizarte Babesa arautzen duena.
- 3/2021 Errege Lege Dekretua, otsailaren 2koa, Gizarte Segurantzaren eta ekonomiaren arloan genero-arrakala eta beste gai batzuk murrizteko neurriak hartzen dituen.



PROBINTZIA-ZUZENDARITZA	Helbidea	PK	Herria	Telefonia	Posta elektronikoa
ALACANT	C/ Faro de Santa Pola, 2	03001	Alacant	96 512 65 23	alicante.dirprovism@seg-social.es
ALMERIA	C/ Puerto Pesquero, s/n	04002	Almeria	95 062 02 11	almeria.dirprovism@seg-social.es
ILLES BALEARS	C/ Moll Vell, 15	07012	Palma de Mallorca	97 172 56 06	illesbalears.dirprovism@seg-social.es
BARTZELONA	C/ Albareda, 1 - 13	08004	Bartzelona	93 443 96 00	barcelona.dirprovism@seg-social.es
BIZKAIA	Begoñako Andra Maria kalea, 32	48006	Bilbo	94 473 90 00	bizkaia.dirprovism@seg-social.es
CÁDIZ	Avda. de Vigo, s/n	11006	Cádiz	95 625 17 03	cadiz.dirprovism@seg-social.es
KANTABRIA	Avda. de Sotileza, 8	39009	Santander	94 221 46 00	santander.dirprovism@seg-social.es
CARTAGENA	C/ Muelle Alfonso XII, s/n	30202	Cartagena	96 850 20 50	cartagena.dirprovism@seg-social.es
CASTELLÓ	Pl. Miquel Peris i Segarra, s/n	12100	Castelló de la Plana	96 428 30 72	castellon.dirprovism@seg-social.es
CEUTA	C/ Muelle Cañonero Dato, 20	51001	Ceuta	95 650 02 40	ceuta.dirprovism@segsocial.es
GIJÓN	C/ Celestino Junquera, 19	33201	Gijón	98 532 72 00	gijon.dirprovism@segsocial.es
GIPÚZKOA	Otamendi Anaiak kalea, 13	20014	Donostia	94 348 32 00	gipuzkoa.dirprovism@segsocial.es
HUELVA	Avda. Hispanoamérica, 9	21001	Huelva	95 925 74 11	huelva.dirprovism@segsocial.es
A CORUÑA	C/ Ramón y Cajal, 2	15006	A Coruña	88 190 98 00	acoruna.dirprovism@segsocial.es
LAS PALMAS	C/ León y Castillo, 322	35007	Las Palmas Kanaria Handikoa	92 849 46 45	laspalmas.dirprovism@segsocial.es
LUGO	C/ Rda. Músico Xosé Castiñeiras, 10 – bajo	27002	Lugo	98 222 50 10	lugo.dirprovism@segsocial.es
MADRID	C/ Churruca, 2	28004	Madrid	91 591 99 00	madrid.dirprovism@segsocial.es
MÁLAGA	C/ Pasillo del Matadero, 4	29002	Málaga	95 195 57 45	malaga.dirprovism@segsocial.es
MELILLA	Avda. de la Marina Española, 7	52001	Melilla	95 176 43 00	melilla.dirprovism@segsocial.es
TENERIFE	Avda. de Anaga, s/n	38001	Santa Cruz Tenerifekoa	92 259 89 00	tenerife.dirprovism@segsocial.es
SEVILLA	C/ Fernando IV, 1	41011	Sevilla	95 428 60 28	sevilla.dirprovism@segsocial.es
TARRAGONA	C/ Francesc Bastos, 19	43005	Tarragona	97 719 10 00	tarragona.dirprovism@segsocial.es
VALENTZIA	Av. del Port, 300	46024	Valentzia	96 335 99 00	valencia.dirprovism@segsocial.es
VIGO	Avda. Orillamar, 51	36202	Vigo	98 621 61 00	vigo.dirprovism@segsocial.es
VILAGARCÍA	Avda. de la Marina, 23	36600	Vilagarcía de Arousa	98 656 83 00	vilagarcia.dirprovism@segsocial.es



INFORMAZIO GEHIAGO

Web-orria



Egoitza elektronikoa



Deskargatu "ISM en tu bolsillo" aplikazioa



GIZARTERATZE, GIZARTE SEGURANTZA ETA MIGRAZIO MINISTERIOA

Gizarteratze, Gizarte Segurantz eta Migrazio Ministerioaren argitalpen-programan sartutako argitalpena (2/2020 Errege Dekretua, urtarrilaren 12koa)

Argitalpen honetan klororik gabeko paper birziklatua erabili da kontratazio publikorako ingurumen-irizpideen arabera.

<https://cpage.mpr.gob.es>



MINISTERIO
DE INCLUSIÓN, SEGURIDAD SOCIAL
Y MIGRACIONES

SECRETARÍA DE ESTADO
DE LA SEGURIDAD SOCIAL
Y PENSIONES



INSTITUTO SOCIAL
DE LA MARINA